

## ENTHUSIASM\_ARCHIVE\_WORKSHOP

Heldu den otsailaren 22tik 24ra Carles Guerra eta Leire Vergarak koordinatutako *Enthusiasm\_archive\_workshop* mintegia egingo dute Artelekun. Mintegi horrek Neil Cummings eta Marysia Lewandowskaren *Enthusiasm* proiektua du oinarri, Poloniako zine amateur mugimenduak joan den mendeko 50. hamarkadatik 80.era arte filmatutako pelikulekin osatutako artxiboa eta erakusketa.

Poloniako Errepublika Popularrean sortutako zine-klubak langileei eguneroko bizitza filmean harrapatzeko beharrezko materiala ematen zitzaien lantegiei lotutako erakundeak ziren. Horrela, egileak autonomiaz eta era kolektiboan sartzen ziren ekoizpen bideetan. Artistek langile horiek eginiko pelikula ugari berreskuratzea lortu dute eta egunerokoaren genealogia izan daitekeena osatu dute tresna subertsibo gisa ulertuta. "Bildu dugun materiala langileek beraien etxeetan gordeta zeukaten eta erakunde publikoek ez zuten inongo interesik pelikula horiengan. Zine-klubetako kide zaharregana jo beharra izan genuen eta Polonia osoa zeharkatu genuen horretarako. Askotan beraien etxeetan gordetzen zituzten filmaketak, ohearen azpian. Sakabanaturik zegoen materiala zenbaterainokoa zen ohartu ginenean, artxibo bat osatzeko beharra zegoela ulertu genuen".

*Enthusiasm* proiektuaren kutsu artxibatzaile eta dokumentalak Cummingsen eta Lewandowskaren aurreko proiektuen jarraipena baieztatzen du, esaterako, *Not Hansard: the common wealth* (2000). Bertan, tokiko klubek, afizionatu taldeek, bildumazaleek eta elkarteek auto-ordezkaritza edo *Free Trade* (2003) ariketa propio gisa ekoiztutako dokumentu grafikoak pilatzen zituzten eta horietan, artearen eta kapitalaren loturak aztertzen zituzten, Manchester Art Gallery-ko bildumaren bitartez. Artista horiek formatu horretan narratiba partikularrak baino gehiago, lurraldeak eraikitzeo aukera ikusten dute, edo interpretazioa egunerokoaren azterketa-prozesu amaigabe gisa sustatzeko gaitasuna.

Proiektua Varsoviako Centre for Contemporary Art-en erakutsi zuten lehen aldiz, 2004ko udan, *Enthusiats* izenburuarekin. Ondoren, Londreseko Whitechapel zentroan, Berlineko KWn etaartzelonako Fundació Tàpies-en izan da ikusgai. "Proiektua lehen aldiz Varsovian aurkeztu genuenean, erakusketak pelikulen eta sortzaileen testuinguru sozial eta kulturalen zuen ardatza. Sortzaileak *enthusiasts* kontzeptuarekin identifikatu genituen. Ondoren, pelikulen inguruan hausnarketa sakonagoa egin genuen eta *enthusiasm* kontzeptua garrantzitsua bilakatu zen guretzat. *Enthusiasm* hartu-eman guztiak ahalbidetzen dituen indarra da", diote Cummings eta Lewandowskak. Proiektuaren bigarren fasea, Londres, Berlin etaartzelonan ikusi ahal izan zena, *enthusiasm* gizarte kapitalistetan hedatzen den kontra-kulturaren sustatzaile moduan daukan indarra azpimarratu zuten. Pertsona arruntek kultura ofizialak eragindako zapalkuntzaren aurrean sortzen duten ustekabeko erantzuna da *enthusiasm*.

Pelikulekin osatutako artxiboa Creative Commons lizentziapean dago, horrela adostu baitzuten artistek egileekin. Laster, online ere kontsultagarri ipiniko dute. "*Enthusiasm*-en interesa iturri ireki gisa eratzea da, hau da, digitalizatuko den eta *online* eskuratzeko moduan egongo den emandako pelikula multzo bat izango da, ez ikusteko bakarrik, baizik eta etorkizuneko zinemagileek baliabide material gisa erabili ahal izateko", Leire Vergara mintegiaren koordinatzaileetako baten aburuz.

Artelekun egingo duten tailerrak Cummings eta Lewandowskarak eraturako artxiboaren zati bat ikusteko parada eskainiko du. Pelikulak hiru taldetan sailkatu dituzte, gaika: maitasuna, desioa eta lana. Tailerraren programa bi zatitan banatu dute: goizetan, artistek eta parte-hartzaileek enthusiasm-en gaineko eztabaida itxiak egingo dituzte. Arratsaldeetan, pelikulen proiektzioak eta gonbidatuen hitzaldiak izango dira. Horietara, nahi duen oro bertaratu daiteke.

\*Testu hau Leire Vergarak [Zehar aldizkariaren](#) 57. alean argitaratu zuen "[Artxibogogotsua](#)" artikulua eta "[Enthusiasm](#)", London : Whitechapel; Berlin : KW Institute for Contemporary Art; Barcelona : Fundació Tàpies, 2005 katalogoko informazioarekin osatu dugu.